



## **A K T A**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2007ko abenduaren 20a, osteguna

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa

**DEIALDIA:** Lehena    **HASIERA-ORDUA:** 19:00    **AMAIERA-ORDUA:** 20:40

**BERTARATUAK:** **Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi,

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Joseba Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa

**Idazkari-kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

### **Aztergai zerrenda**

- 1.- Hauteskunde Batzorde Zentralaren presidentek emandako kredentzialaren berri ematea eta zinegotzi berriaren kargu hartzea. Kredentzian adierazten da Iñaki Garcia Aranbarri Udaleko zinegotzi izendatua izan dela, Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioaren izenean, karguari uko egin zion Oier Sarobe Escuderoen ordez.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2007ko aurrekontuari dagokion 6/2007 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteak. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.



- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2007ko aurrekontuari dagokion 4/2007 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea. Kreditu aldaketa kredituen transferentzia modalitatean egina dago
- 4.- Adjudikatzea, egoki bada, Kale Nagusia 17an dagoen Iturriaga jauregiaren errehabilitazio lanen kontratazioa.
- 5.- Adjudikatzea, egoki bada, Udaleko Gazteria alorreko AMETSA gaztelekuaren zerbitzuaren kontratazioa, lehiaketa publiko bidez egina.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Udal Kiroldetgiko kirol instalazioen gestio osoa KIROLATZEN 2000 SL entitatearen kargura uzteko kontzesioaren kontratua luzatzea.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Zerbitzuak Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen Eraberritutako Testuari jarritako baldintzak betetzea eta egin dituen oharrak eta ikusitako akatsak zuzentzea.
- 8.- Onartzea, egoki bada, EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa: 'Nazio bat, selekzio bat'
- 9.- Onartzea, egoki bada, EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa: 'Euskal Herriaren eskubideen alde, egitasmo politiko guztiei aukera demokratikoa, herri gisa erantzuteko garaia da'.
- 10.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- HAUTESKUNDE BATZORDE ZENTRALAREN PRESIDENTEAK EMANDAKO KREDENTZIALAREN BERRI EMATEA ETA ZINEGOTZI BERRIAREN KARGU HARTZEA. KREDENTZIALEAN ADIERAZTEN DA IÑAKI GARCIA ARANBARRI UDALEKO ZINEGOTZI IZENDATUA IZAN DELA, EZKER BATUA-BERDEAK/ARALAR KOALIZIOAREN IZENEAN, KARGUARI UKO EGIN ZION OIER SAROBE ESCUDEROREN ORDEZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Iñaki Garcia Aranbarririk eginak dituela bateraezintasun arrazoiei buruzko eta jardueri buruzko aitopena eta ondasunen aitopena. Beraz, legearen arabera, karguari dagozkion betebeharrak fideltasunez betetzearen agindu edo zina alde aurretik eginda, Iñaki Garcia Aranbarririk Orioko Udaleko zinegotzi kargua hartzen du, Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioaren izenean.



**2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2007KO AURREKONTUARI DAGOKION 6/2007 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta idazkari-kontuhartzaileak emandako txostenaren eta Hazienda Batzorde Informatzaileak 2007ko abenduaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**1. HASIERAKO ONARPENA EMATEA** 2007ko aurrekontuari dagokion 6/2007 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 446.389 euroko kopurua du.

**3.- JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, indarrean dagoen araudia betez. Jendaurrean jartzea honako arauen arabera izango da:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Toki Ogasunak arautzen dituen, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten udalbatzarkideek.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 28ko 39/1988 legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera erregistroan, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2007KO AURREKONTUARI DAGOKION 4/2007 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA KREDITUEN TRANSFERENTZIA MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta idazkari-kontuhartzaileak emandako txostenaren eta Hazienda Batzorde Informatzaileak 2007ko abenduaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**1. HASIERAKO ONARPENA EMATEA** 2007ko aurrekontuari dagokion 4/2007 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kredituen transferentzia modalitatean egina dago eta 96.385 euroko kopurua du.

**3.- JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, indarrean dagoen araudia betez. Jendaurrean jartzea honako arauen arabera izango da:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Toki Ogasunak arautzen dituen, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten udalbatzarkideek.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 28ko 39/1988 legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera erregistroan, bulego orduetan (asteleheneretik ostiralera 8:30etatik 14:30etara).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

#### **4.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, KALE NAGUSIA 17AN DAGOEN ITURRIAGA JAUREGIAREN ERREHABILITAZIO LANEN KONTRATAZIOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketaren iragarkia 2007ko urriaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (208. zenbakian) eta, geroztik, tramitazioak bere bidea egin du.

Proposamenak aurkezteko epean, lehiatzaile bakarra aurkeztu da lehiaketara:

1.- FREYSSINET, S.A.



Kontratazio mahaiak proposatzen du FREYSSINET, SA sozietate merkantilari adjudikatzea Iturriaga jauregia errehabilitatzeko obren kontratua, berea delako lehiaketara aurkeztutako proposamen bakarra.

**IKUSITA** kontratazio mahaiaren proposamena eta udal zerbitzu teknikoek emandako txostena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

**1.- ONTZAT EMATEA** 2007ko azaroaren 23an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

**2.- BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** FREYSSINET SA sozietate merkantilari Kale Nagusia 17an dagoen Iturriaga jauregiaren errehabilitazio lanen kontratazioa. Lanak proiektu teknikoaren arabera egingo dira eta adjudikazioaren prezioa 575.639,72 eurokoa da, gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZa barne.

**3.- JAKINARAZTEA** erabaki hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege errekurtsoak azalduz.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburuk hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela ez Iturriaga jauregia egokitzearen kontra daudelako, baizik eta Udalak erakutsi duen jokamoldeagatik, ez baitie Goiko Kaleko bizilagunei aukerarik eman beren proposamenak lantzeko.

**5.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, UDALEKO GAZTERIA ALORREKO AMETSA GAZTELEKUAREN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA, LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ EGINA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketaren iragarkia 2007ko urriaren 24ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (208. zenbakian) eta, geroztik, tramitazioak bere bidea egin du.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko epea bukatuta, bi lehiatzaile aurkeztu dira:

1.- TXURRUMUSKI KAE

2.- JOKAITZA SL

**IKUSITA** kontratazio mahaiak aho batez proposatu duela Udaleko Gazteria alorreko Ametsa gaztelekuaren gestio zerbitzua emateko kontratua Txurumuski Kultur-Aisialdi



Elkarteari adjudikatzea, bere proposamenak jaso duelako puntuaziorik altuena, klausula ekonomiko-administratibo partikularren Pleguko 12. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.

**IKUSITA** Gazteriako udal teknikariak emandako txostena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**1.- ONTZAT EMATEA** 2007ko azaroaren 13an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

**2.- BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** Txurrunuski Kultur-Aisialdi Elkarteari Udaleko Gazteria alorreko Ametsa gaztelekuaren gestio zerbitzua emateko kontratua. Zerbitzuaren adjudikazio prezioa 35.612 eurokoa da, gastu orokorrak, mozkin industrialia eta BEZa barne.

**3.- JAKINARAZTEA** erabaki hau enpresa lizitatzailerik guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege errekurtsoak azalduz.

**6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL KIROLDEGIKO KIROL INSTALAZIOEN GESTIO OSOA KIROLATZEN 2000 SL ENTITATEAREN KARGURA UZTEKO KONTZESIOAREN KONTRATUA LUZATZEA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Proposamenaren arabera, sei urtez luzatuko zaio KIROLATZEN 2000 SL entitateari udal kiroldegiko kirol instalazioen gestio osoaren kontratua, eta Udalaren ekarpena, luzapenaren lehen bi urteetan, jaitsi egingo da, urteko 120.000 eurotik 110.000 eurora.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kirol batzordeak 2007ko azaroaren 15ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU AHO BATEZ** [guztira, **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**ONARTZEA** udal kiroldegiko kirol instalazioen gestio osoa KIROLATZEN 2000 SL entitatearen kargura uzteko kontzesioaren kontratua **SEI URTEZ** luzatzea. Udalaren ekarpena, luzapenaren lehen bi urteetan, jaitsi egingo da, urteko 120.000 eurotik 110.000 eurora.

**7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LURRALDE ANTOLAKETA ZERBITZUAK ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ERABERRITUTAKO TESTUARI JARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA ETA EGIN DITUEN OHARRAK ETA IKUSITAKO AKATSAK ZUZENTZEA.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Zerbitzuak Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen Eraberritutako Testuari egindako oharrak honako hauek dira:

1.- 2006ko abenduaren 26ko behin betiko onarpeneko erabakitik eratorritako baldintzak betetzeko, dokumentuari egin zaizkion aldaketak direla eta, ohar hauek egiten ditu Lurralde Antolaketa Zerbitzuak: 2. eta 3. planoetan kalifikazio globalerako erabilitako kodea eta fitxa urbanistikoekin batera datorren 3. plano berrian erabilitakoa ez dator bat araudi orokorraren 10. eta 11. artikuluetan dioenarekin; eta, gainera, bideak ez dira 'D' zonak baizik eta 'E.1 Red viaria'. Era berean, portuak 'SG de comunicaciones' gisa agertzen dira 10. artikuluan, 'E.2 zonas portuarias' gisa kodetuta; baina 11. artikuluan oker kalifikatuta ageri dira: 'SG de espacios libres'.

2.- Etxebizitza erabilera duten eremuetako 'Fitxetako' lehen orrialdean sartutako zonifikazio globalaren laburpen koadroak zonifikazio xehatuaren kategorizazioa biltzen du, eta ez zonifikazio globalarena.

3.- Behin betiko onarpeneko erabaki horren betekizunekin jarraituz, hainbat ingurutan (3 Zabalgunea, 4 Aita Lertxundi, 6 Erribera eta 16 Anibarko Portua) segitzen du zehaztu gabe zein den lur azpian aurreikusitako aparkalekuen jabetza erregimena eta erabilera; eta, horretarako, kontuan hartu behar da domeinu eta erabilera publikoko espazioak ez liratekeela pribatizatu behar.

4.- Araudi orokorreko 16. artikulua kendu izanak, aldatzeko partez, eta 4. artikulua orain duen idazketak ez du aukerarik ematen planetik eratortzen diren planeamendu orokorreko izaera duten ordenamendu xehatuko zehaztasunen berri izateko.

5.- Araudi orokorreko 14. eta 15. artikuluetan azaltzen den kalifikazio xehatuak koherentea izan behar du 17., 18. eta hurrengo artikuluetan kalifikazio horri egiten zaizkion aipamenekin.

6.- Ondoko akatsak zuzendu behar dira: araudi orokorreko 4. artikuluan, 'documento 2' esaten duen tokian 'documento 3' esan behar du; eta 'documento 3' dioen tokian, 'documento 2'.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du Muntoko sektoreko futbol zelaiaren azpian dauden lur azpiko garajeak ilegalak direla, zeren eta eraikuntza mota horiek ez baitatoz bat, inola ere, Europar Parlamentuak 2007ko apirilaren 25ean onartutako Uholdeen Bilakaera eta Gestioari buruzko Direktibarekin eta, ezta ere, honako arauarekin: Autonomia Erkidegoko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Saileko Ur Zuzendaritzak 2007ko maiatzaren 17an ezarritako Lurraren Erabilpen Erregimena eta Irizpideak, urpean geratzeko arrisku mailaren arabera. Kontuan hartu behar da, bereziki, aparkaleku horiek zero kotatik behera daudela eta itxitura metalikoak dituztela. Gainera, adierazten du Muntoko sektorea urpean



geratzeko arriskua duen inguruan dagoela, hamar urtez behingo maiztasun aldiarekin, Autonomia Erkidegoko Ur Zuzendaritzak egindako kartografiaren arabera. Ondorioz, eskatzen du Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioak Gipuzkoako Foru Aldundira itzultzea, hark aplikatzekoa den araudi berrira egokituko den planteamendu urbanistiko berria egin dezan.

Alkateak eskatuta, udal idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du gaurko onarpena tramite hutsa dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Zerbitzuak Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen Eraberritutako Testuan ikusi dituen akatsen zuzenketara mugatzen dela; are gehiago, kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak onartua daukela, hainbat baldintzarekin, 2006ko abenduaren 26an, Orioko Planeamendurako Arau Subsidiarioen Berrikusketarako tresna urbanistikoa, eta, onarpen hartan jarritako baldintzak betetzeko, Udalbatzarrak Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen Eraberritutako Testua prestatu eta onartu zuela, 2007ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran

Idazkariak adierazten du, baita ere, ez duela bertaratu den jendea aspertu nahi Muntoko sektoreari buruz eman dezakeen informazio guztiarekin, bilkura monografikoa beharko bailuke horretarako eta hori ez baita udalbatzar honen helburua. Nolanahi ere, idazkariak adierazten du oso garbi dagoela Mendibeltz futbol eta sofbol zelaiko lur azpiko garajeak guztiz legalak direla, indarrean dagoen araudia betetzen zutelako eta gaur egun ere betetzen dutelako.

Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du, Iñaki Garcia zinegotziak bezala, bere talde politikoak ere eskatzen duela Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioak Gipuzkoako Foru Aldundira itzultzea, besteak beste, honako arrazoiagatik: dokumentu urbanistiko horrek ez duelako ezer planteatzen etxebizitza sozialaren arazoari buruz. Bestalde, adierazten du orain arte ez dutela aukerarik izan proposamen hau planteatzeko, aurreko agintealdian bere talde politikoak ez zuelako izan ordezkariarik udalean.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du Orioko Arau Subsidiarioak prestatzea ordu askotako lana izan dela, buruhauste ugari sortu duena, eta, beraz, errespetua eskatzen diela guztiei; are gehiago, kontuan hartuta gaurko onarpena tramite hutsezkoa dela eta akatsak zuzentzea duela helburu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gertutasuna, Giza Balioak, Herri Antolaketa batzordeak eta Obra eta Zerbitzuetako batzordeak 2007ko abenduaren 18an emandako diktamen bateratua ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoa: Iturain (EB-B/Aralar) guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:





**1.- ONARTZEA** Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen Berrikusketaren Espediente Urbanistikoaren Eraberritutako Testua, Orioko Udalak sustatua eta Iñaki Etxeberria Izagirre arkitektoak eta Jose M. Abad Urruzola abokatuak idatzia. Eraberritutako Testu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Zerbitzuak jarritako baldintzak betetzen ditu eta egindako oharra eta ikusitako akatsak zuzentzen ditu.

**2.- BIDALTZEA** aipatutako dokumentazio urbanistikoa, udalbatzarraren erabaki honen ziurtapen administratiboarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Zuzendaritza Nagusira, beharrezko tramiteak bidera ditzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluari proposa diezaion Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen Eraberritutako Testua onartzea abenduaren 27an egingo duen bilkuran, gero argitaratu eta indarrean jartzeko.

**8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAE-ANV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: 'NAZIO BAT, SELEKZIO BAT'.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*Ofizialtasunaren bidean, kirol esparruan eginiko saiakeren eta aldarrikapen saioen aurka, 2007. urtean Espainiako Gobernuak izandako jarrera erasotzailea oso nabarmena izan da. Besteak beste, Paulino Luesmak, Espainiako Gobernuak, EAEn duen ordezkariak, Euskadiko 19 Federaziotako estatutueta artikulua batzuen aurka jarritako helegitea —EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartua—, Euskal Herriko futbol selekzioko jokalariek ofizialtasunaren aldarrikapenerako, Venezuelan ateratako pankartarengatik, jasandako lintxamendu mediatiko eta politikoa, e.a.*

*Eraso guzti hauek, euskal herritarren eta gure ordezkari diren instituzioen aldetik, erantzun sendo bat eskatzen dute. Euskal jendartean nagusiki hedaturik dagoen ofizialtasunaren nahiak eta beharrak, instituzioen babesa behar du. Hau dela eta, abenduan sentimendu hau barnebiltzen dituen hainbat nazioarteko lehiaketak daudela eta, Udalbatza honek honako adierazpena egiten du:*

*1.- Euskal Herria, Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoak osatzen duten nazioa da. Nazioa den heinean, Euskal Herriko kirolariek, beren nazioaren koloreekin euskal selekzioa ordezkatzuz, nazioarteko txapelketetan parte hartzeko eskubidea dute.*

*2.- Udalbatza honek eskubide horren ukazioa arbuiatzen du; batetik, kirolariei, Euskal Herria ordezkatzuz, gainontzeko munduko nazioetako kirolarien antzera, ofizialki lehiatzea ukatzen zaielako, eta bestetik, euskal herritarrok nazioartean gure ordezkartza izateko dugun eskubidea urratzen duelako.*



3.- Euskal Herriari ofizialki ordezkaturia izateko eskubidea ukatzen zaionean, Euskal Herriaren kanpo proiektzioa eta, finean, nazio baten existentzia ukatu nahi da. Beraz, Udalbatza honek euskal herritarren eskubide kolektibo eta indibidualen urraketa arbuatzen du.

4.- Zentzu honetan, herritarrei dei egiten diegu ESAITek, abenduaren 29an, Bilbon, "EUSKAL HERRIA, nazio bat, selektzio bat" lelopean antolatutako ekimenetan, eta, zehazki, arratsaldean egingo den manifestazioan parte hartzeko, egun hori euskal selektzioaren (ofizialtasunaren) aldeko aldarrikapenerako eguna izan dadin.

5.- Udalbatza honek, herritarrek abenduaren 29an Bilboraino aldarrikapena eraman dezaten erraztuko du, eta erabaki honen berri herritarrei jakinarazi die.

Udalbatzarrak, bestalde, EAJ eta EA udal talde politikoek aurkeztu duten mozio alternatiboaren berri jasotzen du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

## EUSKAL SELEKTZIOEN ALDE

Ofizialtasunaren bidean, kirol esparruan eginiko saiakeren eta aldarrikapen saioen aurka, 2007. urtean Espainiako Gobernuak izandako jarrera erasotzailea oso nabarmena izan da. Besteak beste, Paulino Luesmak, Espainiako Gobernuak, EAEn duen ordezkariak, Euskadiko 19 Federazioetako estatutuetako artikulua batzuen aurka jarritako helegitea -EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartua-, Euskal Herriko futbol selektzio jokalariek ofizialtasunaren aldarrikapenerako, Venezuelan ateratako pankartarengatik, jasandako lintxamendu mediatiko eta politikoa, e.a.

Eraso guzti hauek, euskal herritarren eta gure ordezkari diren instituzioen aldetik, erantzun sendo bat eskatzen dute. Euskal jendartean nagusiki hedaturik dagoen ofizialtasunaren nahiak eta beharrak, instituzioen babesa behar du. Hau dela eta, abenduan sentimendu hau barnebiltzen dituen hainbat nazioarteko lehiaketak daudela eta, Udalbatza honek honako adierazpena egiten du:

1.- Euskal Herria, Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoak osatzen duten nazioa da. Nazioa den heinean, Euskal Herriko kirolariek, beren nazioaren koloreekin euskal selektzioa ordezkaturia, nazioarteko txapelketetan parte hartzeko eskubidea dute.

2.- Udalbatza honek eskubide horren ukazioa arbuatzen du; batetik, kirolariei, Euskal Herria ordezkaturia, gainontzeko munduko nazioetako kirolarien antzera, ofizialki lehiatzea ukatzen zaielako, eta bestetik, euskal herritarrok nazioartean gure ordezkari izateko dugun eskubidea urratzen duelako.

3.- Euskal Herriari ofizialki ordezkaturia izateko eskubidea ukatzen zaionean, Euskal Herriaren kanpo proiektzioa eta, finean, nazio baten existentzia ukatu



*nahi da. Beraz, Udalbatza honek euskal herritarron eskubide kolektibo eta individualen urraketa arbuiazen du.*

*4.- Zentzu honetan, herritarrei dei egiten zaie, abenduaren 29an, Bilbon, "EUSKAL HERRIA, nazio bat, selekzioa bat" lelopean antolatu diren ekimenetan parte hartzeko, egun hori euskal selekzioaren ofizialtasunaren aldeko aldarrikapenaren eguna izan dadin.*

EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa **ONARTU EGITEN DA, BOZKETA BIDEZ**, azalpenean jasota dagoen terminoetan [aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ABSTENTZIO BOTO**].

EAJ eta EA udal taldeek aurkeztutako mozioa ere **ONARTU EGITEN DA, BOZKETA BIDEZ**, azalpenean jasota dagoen terminoetan [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**].

Emandako botoak azaltzeko, Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du sozialistek ez dutela selekzioen sukar horretan parte hartzen, eztabaida faltsua iruditzen zaielako; baina benetan errespetatzen duela batzuentzat pizgarria izatea nazioarteko lehietan parte hartzea.

## **9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EAE-ANV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: 'EUSKAL HERRIAREN ESKUBIDEEN ALDE, EGITASMO POLITIKO GUZTIEI AUKERA DEMOKRATIKOA, HERRI GISA ERANTZUTEN GARAIA DA'.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*55 auziperatu, 46 atxilotze agindu, 500dik gora espetxe urte. 18/98ko epaiak herri honen eskubideen ukazioan sakondu eta Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzeko oinarri berrituak ezarri ditu. Ez da urrats isolatua, urte luzez Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoaren aurkako jazarpenaren segida da. Euskal herritarren eskubide zibil eta politikoaren aurkako eraso estrukturala dago horren oinarrian, gero eta talde edo jarduera gehiago bere baitan biltzen duena. Gazteen aurkako epaiketa eta zigorra hortxe dago eta beste batzuk hasiko dira datozen hilabeteotan (Udalbiltza, Egunkaria, GGAA-Askatasuna, Batasuna)*

*Guzti honek estrategia jakin bati erantzuten dio, espainiar Estatuak, PSOEko Gobernuak, Euskal Herriaren eraikuntzako zutabe nagusiak kolpatzen ari da,*



*konponbide demokratikoari ateak itxi eta independentziaren aldeko hautua kriminalizatzen.*

*Argi eta garbi esan dezagun. Ez dago demokraziarik, ez dago justiziarik. Gaur eta hemen espainiar Estatuak, PSOEko Gobernuak, herri honi eskaintza bakarra egiten dio: errepresioa eta Konstituzioa. Gaur eta hemen Konstituzioa inposatzen zaigu, Euskal Herria ukatuz, euskal herritarren eskubideak urratuz, gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubideari ateak itxiz. Gaur eta hemen, Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten duen orori, gatazkaren konponbide demokratikoaren alde lan egiten duen orori, herri honentzako independentzia nahi duen orori errepresioa ezartzen zaio.*

*Hori da PSOEren estrategia eta helburu jakina du, herri honi iruzur berri bat ezarri nahi dio. Gatazka luzatuko duen iruzurra, gatazkaren sorburu den ukazio marko hau indartzea duelako helburu. Gatazkaren konponbideari ateak ixtea bilatzen duen iruzurra, independentziari ateak itxita euskal herritarroi aukera politiko guztien artean gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea ukatzen digulako.*

*18/98ko sumarioa, epaiketa eta zigorra ez zen posible izango espainiar Estatuak PNVren laguntza izan ez balu, eta egun PNVren laguntza ezinbestekoa zaio PSOEri herri honi iruzur berria ezartzeko. Orain 30 urte gertatu bezala Euskal Herria Espainiako zati izan dadin egiten ari da PNV lan. Hori da PSOEek PNVrekin batera herri honi ezarri nahi dion iruzurra eta horretarako kolpatzen du Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten duen oro, independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du iruzur berria ezarri asmoz.*

*Une erabakiorra bizi dugu, aldaketa politikoaren ataria izan daitekeena. Euskal Herriak ez du iruzur zahar berri bat onartuko, Euskal Herriak konponbide demokratikoa behar du. Eta horretara goaz, konponbideari ateak irekitzera, herri honek egitasmo politiko guztien artean, independentzia barne, erabakitzeko eskubidea errespetatua eta bermatua izan dezan.*

*18/98ko epaia zein Euskal Herriaren aurkako eraso orokorrari behar bezalako erantzuna emateko garaia da. Erasoen aurrean erantzun eta Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraituko dugu. Eta hori da euskal herritar orori zabaltzen diogun deia.*

*Aipatutako guztia kontutan hartuta, honako mozioa aurkezten dugu udal osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan,*

*1. Udal honek irmoki salatzen du 18/98ko epaia eta atzean dagoen Euskal Herriaren aurkako eraso. Espainiar Estatuak, epai honen bitartez, Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzen ditu, Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoa jazartzen du. Independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du herri honi iruzurra ezarri asmoz.*



2. *Udal honek argi adierazi nahi du: Espainiar estatuan ez dago demokraziarik ezta Euskal Herriarentzako etorkizunik ere. Espainiar estatuak bere Konstituzioa eta salbuespen legedia inposatzen du Euskal Herria ukatzeko, konponbide demokratikoari ezetz esateko, herri honen eskubideei ateak ixteko.*
3. *Udal honek konponbide demokratikoa aldarrikatzen du, euskal herritarrok egitasmo politiko guztien artean bere etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidean oinarrituko den konponbidea, hain zuzen ere. Hortaz, udal honek ez du onartuko herri honi iruzurrik inposatzea.*
4. *Udal honek bat egiten du Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiteagatik 18/98 sumarioan auziperatu eta zigortuak izan diren gizon emakume guztiekin, eta elkartasun zein babes osoa agertzen die.*
5. *Udal honek 18/98ko epaia eta Euskal Herriaren aurkako etengabeko erasoei erantzuteko antolatuko diren mobilizazio guztiekin bat egin eta horietan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.*
6. *Udal honek Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraitzeko deiarekin bat egin eta horretara animatzen ditu udalerriko talde, kolektibo eta herritar oro.*
7. *Onartutakoaren berri emango zaio herritar orori zein komunikabideei.*

Udalbatzarrak, bestalde, EAJ udal talde politikoak aurkeztu duen mozio alternatiboaren berri jasotzen du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*18/98 prozedura judizialaren inguruan, pleno honetan eztabaidatu eta onartzeko aurkezturiko mozioaren aurrean, EAJk honako mozio alternatiboa aurkezten du:*

- 1.- *Epaiketa honen izaera politikoa gogor salatzen dugu. Prozedura judizial honen abiapuntua politikoa eta demokraziaren aurkakoa da.*
- 2.- *Sistema demokratiko batean, errugabetasun presuntzioa eta berme prozesalak ezinbesteko eskubideak dira eta errespetatuak izan behar dute. Zuzenbide estatu batean pertsonak beraien ekintzengatik epaitzen dira, ekintza hauek delitu osagai diren neurrian. Prozesu honetan, berriz, talde armatuko kide izateak esan nahi duenaren irakurketa zabal eta interesatua medio, guztiz onargarriak diren ekintzak legez kanpokoak izatera pasatzen dira.*
- 3.- *Pertsona ororen giza eskubideen defentsa eta herri honi bere etorkizuna erabakitzeko zor zaion errespetua, bizi dugun gatazka politikoari eta bakegintzari aurre egiteko ezinbesteko bi zutabe dira.*
- 4.- *Zentzu honetan, auziperatuei, beraien senitartekoei nahiz auziperaturiko enpresa eta taldeei gure laguntza eskaini nahi diegu.*



Udalbatzarrak, azkenik, Ezker Batua-Berdeak/Aralar udal talde politikoak aurkeztu duen mozio alternatiboaren berri jasotzen du. Mozioak, hitzez hitz, honela dio:

*Orioko Udalak gogor salatu nahi du 18/98 sumarioan auzipetutako 46 pertsona atxilotzeko Auzitegi Nazionalak emandako agindua. Atxilotuei eta haiek ordezkatzeko dituzten erakundeei elkartasuna adierazi nahi diegu.*

*Salatu nahi dugu 18/98 prozesua bere osotasunean izan den zentzugabekeria judizialean beste urrats bat eman dela.*

*Aipatu prozesuak bere oinarrien artean izan zituen akusazio kolektiboa eta ideien kriminalizazioa zigortzea, demokrazian erabat deitoragarri diren jokabide bi dira eta epaiketaren izaera politikoa agerian uzten dute. Atxiloketak epaia jakin aurretik egin izana ere salagarria iruditzen zaigu.*

*Era berean, askatasun zibil eta politikoak behin eta berriz urratu dira estatu espainiarraren aldetik, ideien kriminalizazioa, adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubideak, askatasun ideologikoa edota disidentziarako eskubidea delitutzat hartzea erabat onartezina dela aldarrikatu nahi dugu eta gainera Euskal Herriak behar duen konponbiderako ez dela lagungarri. Giza eskubideen urraketa guztien kontra agertzen garelako auzipetuen zigorrak bertan behera utzi eta aska ditzaten exijitzen dugu.*

*Hortaz, honako hau erabaki dugu:*

- 1. Gure elkartasuna agertzea 18/98 auzian atxilotutako kide guztiei, euren senideei eta parte hartzen duten elkarte eta erakundeei.*
- 2. Epaia izaera politikoa eta oinarri gabeko zentzugabekeria judiziala izan den neurrian, prozesua bertan behera utzi eta artxibatu dadila eskatzen dugu, eta atxilotutakoak berehala aska ditzatela exijitzen dugu.*
- 3. Estatu espainiarrari ideien kriminalizazioa alde batera utzi, eta adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubidea eta askatasun ideologikoa bermatuko dituzten neurriak har ditzala eskatzen diogu.*
- 4. Erabaki honen berri komunikabideen bidez zabaltzea.*

EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioa **ATZERA BOTATZEN DA, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU ALDEKO BOTO**; abstentzio botoa: Iturain (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**; kontrako botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Garcia (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI KONTRAKO BOTO**].

EAJ udal taldeak aurkeztutako mozioa **ONARTU EGITEN DA, BOZKETA BIDEZ**, azalpenean jasota dagoen terminoetan [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), eta Cotado (EA), guztira **BOST**



**ALDEKO BOTO;** abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BI ABSTENTZIO BOTO;** kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **LAU KONTRAKO BOTO].**

Azkenik, EB-B/Aralar udal taldeak aurkeztutako mozioa **ATZERA BOTATZEN DA, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **HIRU ALDEKO BOTO;** abstentzio botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV) eta Del Hoyo (EAJ-PNV), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO;** kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **LAU KONTRAKO BOTO].**

Emandako botoak azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du gaurko udalbatzarrean aurkeztutako mozioak, euskal selekzioei buruzkoak eta 18/98 auziari buruzkoak, arazo beraren alderdi desberdinak tratatzen dituztela eta alderdiek ez dutela jarrera bera hartzen batean eta bestean. *Non dago gure etorkizuna?* galdetzen du; eta, EAJ, EA eta EB-B/Aralar talde politikoei zera galdetzen die: *Horrela pentsatzen al duzue eraikitzea euskal nazioa?* Eta, segidan, bere buruari erantzuten dio: *Jai daukagu!*

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du ez datorrela bat EAE-ANV udal taldeak aurkeztutako mozioaren eduki batzuekin.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du nazio bat garela, baina ez garela estatu bat.

## 10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA,**